

**GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO
ESPARRU ESTRATEGIKOA, BASAURIKO
UDALA (2026-2030)**

2025eko abendua

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
I. Testuingurua: Basauriko garapenerako lankidetza politika: elementu globalak eta tokiko elementuak	5
2. 2030 Agenda eta GJHak, erreferentzia-esparru gisa	5
3. Garapenerako lankidetza udal mailan: Basauriren kasua.....	9
II. Garapenerako lankidetza politikaren ildo estrategikoak, tresnak, eragileak eta baliabideak, Basaurin	11
4. Proposatutako jarduera-ildoak	11
5. Lan-ardatzak eta lan-tresnak.....	17
6. Lankidetza-agentek.....	20
7. Baliabideak, jarraipena eta ebaluazioa.....	21
8. Bibliografia.....	21

1. Sarrera

Basauriko Udala garapenerako lankidetzarekin konprometituta dago 2009tik: dirulaguntzen programa bat dauka, zeinak Hegoaldeko herrialdeetako bizi-baldintzak hobetzera bideratutako ekimenak sustatzen eta udalerrian bertan kontzientzia eraldatzailea eta elkartasun-kontzientzia sendotzen laguntzen baitu, zuzenean nahiz, batez ere, GKEEen bidez.

Alabaina, nazioarteko gaur egungo testuinguruak erronka berri eta sakonak ekarri ditu. Izan ere, pobrezia, gosea edo berdintasunik ezak txikitzeko egindako aurrerapenak atzerakada nabarmena jasan dute, azken hamarkadan. COVID-19aren pandemiaren ondorioek, muturreko fenomeno klimatikoen areagotzeak, gatazka armatu iraunkor eta berriek eta garapenerako behar besteko finantziazio-faltak sistemaren krisia irudikatzen duen egoera sortu dute, bizitzaren iraunkortasuna bera eta ongizate globala kolokan jartzen dituen; bereziki, komunitate, talde eta biztanleria zaurgarrienena.

Horrekin batera, erakunde eta jardunbide demokratikoei okerrera egin dute izugarri eta erregimen autokratikoei ugaritu egin dira, eta horrek ekarri du giza-eskubideak gehiago urratzea, gizarte zibila ahultzea eta lankidetzaren alorreko politika publikoek eragiteko duten gaitasuna txikitzea. Gainbehera instituzional horren eraginez, giza-baliabideen defendatzaileak jazarri, eta migratzaileak eta beste kolektibo batzuk (LGTBIak, emakumeak...) kriminalizatzen dira, eta urriagoak dira nazioarteko lankidetzarako aukerak, besteak beste. Hori guztia horrela, orain arteko jarduera-esparruak berrikusi, eta garapenaren alorreko tokiko politiken koherentzia, eraginkortasuna eta erantzukidetasuna sendotu beharra dago.

Egoera hori izanda, beraz, Basauriko Udalak beharrezkotzat jotzen du etapa berri bati ekitea garapenerako lankidetzaren alorrean, erakundearen ikuspuntuak, lehentasunak eta jarduteko tresnak eguneratu ahal izateko. Berrikusketa estrategikoko prozesu horren xedea da Udalak giza garapen jasangarria sustatzeko eragile aktibo eta erantzukide gisa duen papera indartzea, gaur egungo eztabaidetan ardatz bilakatu duen trantsizio ekosozialaren ildotik —zeina gaur egun bizi dugun krisi ekologiko, sozial eta ekonomikoari erantzuteko tresna baita—.

Hartara, plangintza-tresna gisa egituratzen da Garapenerako Lankidetzarako Basauriko Udalaren Estrategia Esparrua: datozen bost urteotan alor horretako udal politika gidatuko duten jarduera-ildoak, erabil daitezkeen tresnak eta koordinazio instituzionalerako mekanismoak ezartzen ditu. Estrategia Esparruak bilatzen duena da politika publiko koherente bat egituratzea, bat etorriko dena bai beste udal tresna batzuekin —kasurako, Basauri 2030 Estrategiarekin—, bai garapenerako lankidetzaren alorreko euskal araudiarekin —Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legea—, bai erreferentzia-esparru globalekin —bereziki, 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH)—.

Era berean, dokumentu honen helburua ere bada urratsak egitea garapen jasangarrirako politika koherenteak egituratzeko, eta, hala, garapenerako lankidetzaren ikuspegia txertatzeko udal jardunaren fase guztietan, modu transbertsalean. Horrez gain, lurraldeko eragileen arteko aliantzak sendotzea bilatzen da —erakunde publikoak, GKEEak, erakunde sozialak, hezkuntza-sektorea eta herritarrak—, dimentsio globala eta tokikoa uztartuko dituen lurralde-lankidetzaren ikuspuntua bultzatzeko.

Horrela, bada, Estrategia Esparrua bi bloke handitan egituratuta dago. Lehenengo blokeak testuingurua eta oinarria ematen dizkio Basauriko lankidetzapolitikari: erreferentzia globalak eta tokikoak jasotzen ditu, eta Udalak arlo horretan egindako ibilbidea berrikusten du. Bigarren blokeak, berriz, Basauriko Udalaren lankidetzapolitika ezartzeko prozesuaren oinarri izango diren jarduera-ildo estrategikoak, kudeaketa-tresnak, eta horretara bideratutako eragile eta baliabideak garatzen ditu.

Oro har, dokumentua Basauriko Udalarentzako gobernantza-tresna da, erakundeari ahalbidetuko diona bere jarduna bideratzea, plangintza- eta jarraipen-gaitasuna hobetzea, erakunde arteko koordinazioa hobetzea eta garapenerako lankidetzaren alorreko esku-hartzeen irismena indartzea, bai nazioarteko bai tokiko eremuan, eta, betiere, eraldatze globalek tokiko konpromiso eta ekintzak behar dituztelako printzipiotik abiatuta.

I. Testuingurua: Basauriko garapenerako lankidetzaren politika: elementu globalak eta tokiko elementuak

2. 2030 Agenda eta GJHak, erreferentzia-esparru gisa

2015ean onartu zuen Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, zeina garapenerako politiken marko politiko global nagusietako bat baita, gaur egun. Agenda unibertsal eta integrala da, dimentsio ekonomikoaren, sozialaren eta ingurumen-dimentsioaren arteko interdependentzia eta giza baliabideak eta planetaren iraunkortasuna bermatzeko beharra aitortzen dituen.

2030 Agendak garapen jasangarrirako 17 helburu eta 169 xede ezartzen ditu. Estatu kideek eta eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalek pobrezia desagerrarazteko, berdintasunik ezak txikitze, genero-berdintasuna sustatzeko, ingurumena babesteko eta bakea, justizia eta erakundeen sendotasuna bermatzeko duten borondate kolektiboa islatzen dute denek. Agendak, bestalde, «herrialde aberastuak eta txirotuak konprometitzen ditu erronka globalei elkarrekin aurre egitera, nagusi den garapen-eredu jasanezinaren eraldaketari modu bateratuan heltzera eta sistema horrek pertsonen bizitzan eta planetarenean eragiten dituen inpaktu desberdinei erantzutera. Izan ere, «bere baitan mundu asko hartzen dituen mundua» leloa onartzeak eskatzen du «norbera aldatzea eta sistema global konplexu batean giza bizitzen jasangarritasuna bermatzeko duen bizikidetzaren globala bilatzea»¹.

Eta, Euskadin, zehazki, «Ahots Batuak» Garapen Jasangarrirako 18. Helburua jaio zen: hizkuntza- eta kultura-aniztasuna gizartearen eraldatzeko ardatz gisa egituratzen dituen ekimena.

Bada, garapenak dakartzan erronkei heltzerakoan, inflexio-puntua da 2030 Agenda, zenbait arrazoi direla eta:

- a. gizateriaren historian sekula lortutako bat-etortze handiena da, munduko herrialde gehienak biltzen dituen —gobernuek gain, gizarte-erakundeak, enpresa pribatuak eta bestelako eragileak biltzen ditu—. Agendak kritika ugari jaso ditu; besteak beste, leporatu izan zaio ekimena aurrera eramateko baliabide eta tresna gutxi daudela, eta ez dela loteslea hari atxikitako herrialdeentzat. Alabaina, lehenengo diagnostikoa da, halako parte-hartzea jaso duena (eta, preseski, horrek eman du aukera garapenaren erronka globalak identifikatzeko).

¹ 3/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarako eta Elkartasunerako.

- b. dokumentuak agenda unibertsal bat planteatzen du, non herrialde eta lurralde sinatzaile guztiek topo egin, eta ardurak berenganatzen dituzten. Hartara, Agenda haraindiko urratsa izan zen: hari esker, gainditu egin da Iparra-Hegoa ikuspegia (zeinaren arabera garapen-arazoak Hegoaldeko herrialdeei baino ez baitzegozkien). 2015etik, beraz, «ikuspegi lokal-globala» gailendu da, eta, ildo horretan, aitortu egin da lurralde guztiek dituztela garapen jasangarriaren alorreko erronkak eta konpromisoak. Tokiko gobernuentzat, unibertsaltasun horrek dakar **paper aktiboa** betetzea herritarrek sentsibilizatzen, gizartea eraldatzeko hezkuntza bultzatzen eta garapen jasangarri eta inklusiboa ahalbidetuko duten hainbat eragileren arteko aliantzak sortzen. Izan ere, Agenda globalaren eta herritarren eta komunitateen errealitatearen arteko lotura zuzena dira tokiko gobernuak, eta horrek aukera ematen die politikak beren beharrian espezifikotara egokitzeko. Tokiko administrazioa, beraz, agenda unibertsal eta zabal bat politika publiko zehatzetan hezurramitzeko gaitasuna duen gobernuaren maila da.

Basauriko Udalak, printzipio horrekin bat, Agenda 2030 hartzen du garapenerako lankidetzaren alorreko erakunde-jarduna zuzentzeko oinarri gisa. Hala egiten du, Basauri 2030 Estrategiaren bitartez, non 7 ildo estrategiko, 21 helburu eta ezarri beharreko zenbait ekintza jasotzen baitira. Honako hauek dira lehenetsitako ildo estrategikoak:

- udalerriaren gizarte-kohesioa sustatzea.
 - ekonomia urbanoa sustatu eta laguntzea.
 - udalerria modu jasangarrian antolatzea eta lurzorua modu arrazionalerik erabiltzea.
 - baliabideak modu jasangarrian kudeatzea eta ekonomia zirkularra bultzatzea.
 - klima-aldaketaren inpaktuak prebenitu eta gutxitzea.
 - udalerriaren nortasun kulturala eta euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea.
 - gardentasuna eta gobernu ona bermatzea.
- c. horrela, bada, 2030 Agendak aurrekoen ikuspuntu sektorialagoa gainditzeko du (Milurtekoaren Garapen Helburuak jasotzen zituenena kasu) eta ikuspegi sistemikoagoa darabil. Horren eraginez, zenbait arlo, maila eta eragileren arteko lana artikulatu beharra dago gako diren eremuetan; besteak beste, gobernantzan, erakundeetan, aliantzetan, garapenerako finantziazioan eta erakunde-gaitasunean.
- d. horrekin batera, Agendak lotu egiten ditu, esplizituki, pobrezia, klima-aldaketa, biodibertsitatea, baliabide naturalak eta garapena. Ingurumen-

jasangarritasuna garapen ekonomiko eta soziala bezain garrantzitsua da, aurreko agendetan ez bezala —non apenas aipatzen baitzen kontu hori—.

- e. GJHen oinarri den aitorpenak argi eta garbi ezartzen du sinatzaileek konpromisoa hartzen dutela gure gizarteen ekoizpen- eta kontsumo-ereduetan aldaketak egiteko. Lehenengo aldia da aitortu egiten dena garapen-eredu hegemonikoa ez dela jasangarria.
- f. era berean, Agendak dio oso garrantzitsua dela giza baliabideak, giza duintasuna, zuzenbide estatua, justizia, berdintasuna eta diskriminaziorik eza errespetatzea. Ildo horretan, norbanakoen jatorri etnikoa eta kultura-aniztasuna zaintzeko ezartzen du, eta emakumeak ahalduentzeko beharra nabarmentzen du, modu aktiboan.
- g. Agenda osatzen duten Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak elkarren menpekoak dira eta lotuta daude; beraz, bat betetzeak beste bat(zuk) betetzen laguntzen du, edo, alderantziz, helburu batean arazorik egonez gero, horrek eragin negatiboak izan ditzake beste batean edo batzuetan. Klima aldaketaren inpaktuak, adibidez (13. GJHa), pobrezia desagerraraztea (1. GJHa) edo ura eta saneamendua edukitzea (6. GJHa) eragotzi ahal dute.
- h. 2030 Agendak garapen jasangarrirako politiken koherentzia (GJPK) sustatzen du jardun publikoaren printzipio orientatzaile gisa. Politiken koherentzia oso garrantzitsua da, erronka globalek mugak gainditzen dituztelako eta. hartara, maila eta eragile guztien arteko erantzun koordinatu eta artikulatuak eskatzen dituztelako. Horrek esan nahi du gobernu baten ekintza eta politika publiko guztiak (izan tokiko gobernua, probintziala, autonomikoa edo estatala) bideratu behar direla garapen jasangarria bilatzera; garapen jasangarria bai herritarrentzat, bai beste lurralde batzuentzat.

Garapenerako Lankidetzarako Basauriko Udalaren Esparru Estrategikoak bat egiten du ikuspegi horrekin, eta tokiko errealitateak globalekin lotzen dituen koherentzia- eta interdependentzia-ikuspuntua ere txertatzen du. Horrekin batera, erakundeak aitortu egiten du garapen jasangarrirako beharrezkoak diren aldaketa estrukturalak udal mailan eta udal arloetatik ere bultzatu behar direla. Horretarako, beharrezkoa da, besteak beste, garapenerako lankidetzaren transbertsalitatea indartzea; alegia, beste arlo batzuekin (merkataritza, ingurumena, berdintasuna, hezkuntza, kontura eta herritarren parte-hartzea, esaterako) eta lurraldeko beste eragile batzuekin koordinatzea, 17. GJHak aurreikusitakoaren ildotik. Helburuak lortzeko aliantzak.

Garapenerako Lankidetzarako Esparru Estrategikoa jarraian adierazitako nazioarteko konpromisoekin lotuta dago, eta Basauriko Udalaren lankidetzapolitikaren erronka nagusienetako batzuk identifikatzen ditu. Hona hemen nazioarteko konpromisoak:

Ikuspuntu estrategikoak eta esku hartzeko tresnak eguneratzea, 2030 Agendaren ikuspegia, garapen jasangarrirako politiken koherentzia eta genero-ekitatea egiturazko printzipio gisa txertatuta.

Tokiko eragileen arteko koordinazioa eta haien parte-hartzea indartzea, Udala, GKEEak, herritarrak, ikastetxeak eta lurraldeko beste eragile batzuk bilduko dituzten gobernantza kolaboratiboko esparruak sustatuta.

Gizartea eraldatzeko heziketa indartzea, basauriarrak sentsibilizatzeko eta beren formakuntza kritikoa eta eraldatzeko konpromisoa sustatzeko funtsezkoa den neurrian.

Basauriarren artean lankidetzarako oinarri soziala handitzea, lankidetzaz gizartean eta politikoki jasangarria dela bermatzeko.

3. Garapenerako lankidetza udal mailan: Basauriren kasua

Udal eremutik bultzatutako garapenerako lankidetza funtsezko osagaia da garapen humano, jasangarri eta bidezkoa bideratutako tokiko politika publikoetan. Udalak dira herritarrengandik hurbilen dagoen administrazio publikoa, eta, ondorioz, haien beharrianak, eskaerak eta itxaropenak hoberen ezagutzen dituztenak. Hurbiltasun horri esker, politika berritzaileak eta testuinguruari egokituak egin daitezke; lurraldeek gaur egun dituzten erronka sozial, ekonomiko eta ingurumen-erronkei aurre egingo dieten politikak, hain zuzen ere.

Nazio Batuen arabera, tokiko gobernuek paper erabakigarria dute 2030 Agenda beren gain hartu eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) gauzatzeari dagokionez. Hori horrela da, tokiko gobernu horiek norbanakoen bizi-kalitatean eragin zuzena izango duten ekintzak sustatzeko beharrezkoa den legitiimitate demokratikoa, hurbiltasuna eta gaitasun operatiboa daukatelako. Horrenbestez, garapenerako udal lankidetza ez da bakarrik nazioarteko elkartasun-politika, ezpada lurraldean bertan sentsibilizatzeko, hezteko eta gizartearen eraldatzeko tresna, eta politiken koherentzia bultzatzeko makulua ere bai.

Udalerriek, gainera, sekulako gaitasuna dute beren inguruko eragile instituzional, sozial eta ekonomikoak mobilizatzeko, lankidetza-sareak eraikitze eta komunitatea sendotzen duten sinergiak sortzeko. Tokiko garapenean espezializatuta daude —hiri-plangintzan, gizarte-zerbitzuetan, ekonomia-sustapenean edo herritarren parte-hartzean, esaterako—, eta, horri esker, liderrak dira, gizarte bidezkoago eta kohesionatuagoak eraikitzerakoan. Horrekin batera, legitiimitate instituzionala dute tokiko eta nazioarteko mailan erabaki estrategikoak hartzeko eta aliantzak egiteko.

Basaurin, zehazki, garapenerako lankidetza aniztasuna, berdintasuna eta elkartasuna ardatz dituen tokiko nortasuna da garapenerako lankidetzaren oinarria. Udalerriaren historia migrazioari lotuta dago, estu-estu, eta, horrek, gizarte ireki eta askotarikoa eraiki du. Eustaten datuen arabera, Basauriko biztanleriaren % 13,12 atzerrian jaiotakoa da. Datu horrek aditzera ematen du udalerriak baduela ibilbide historiko bat, Euskal Herriko beste toki batzuetatik, Estatutik eta beste herrialde batzuetatik etorritakoei lanerako aukerak eta gizarte-integrazioa eskaintzen.

Era berean, Basauri ezaguna da Euskal Herriko eta Estatuko mugimendu feministari egindako ekarpenagatik. 1976 eta 1985 artean, prozesu judizial bati aurre egin behar izan zioten herriko hamaika emakumek, abortatu izanaz akusatuak. Bada, prozesu judizial hura emakumeen eskubideen aldeko borrokaren ikur bihurtu zen, eta 1985ean abortua despenalizatzen lagundu zuen, nabarmen lagundu ere. Ordudanik, kutsu internazionalista argia duen berdintasun-politika garatu du Basauriko Udalak, eta sustatu du beste lurralde batzuetako emakumeekin loturak garatzea (Saharako emakumeekin, adibidez). Horrekin batera, lankidetza feminista bultzatu du erakundeak, justizia globalaren

printzipio gisa. Marienea, Emakumeen Etxea, erreferente instituzionala da, gaur egun, berdintasunaren alorrean; parte hartzeko eta ahalduntzeko espazioa da, udalerriz gaindiko oihartzuna duena.

Azkenik, eremu komunitarioan ere islatzen da lankidetzaren Basaurin, dagoeneko finkeak diren tokiko eta nazioarteko elkartasun-adierazpen ugariaren bitartez. Basauriko emakumeen elkarteek Hegoaldeko herrialdeenganako elkartasunetik bideratu dute beren zeregina. Udal lankidetzaren egituratu aurretik ere, eta gaur egunera arte, Hegoaldeko eta beste leku batzuetako herrialdeetako emakume-taldeek aldeko ekintzak sustatu dituzte Basauriko emakumeen taldeek (errefuxiatuen alde, esaterako). Kuadrillak ere konprometituta daude: herriko jaietan dirua biltzen dute, zaurgarritasun-egoeran dauden basauriarrentzat. Hurbiltasunaren, enpatia-aren eta erantzukidetasun kolektiboaren adierazgarri da konpromiso sozial hori, eta balio horiek guztiak lankidetzaren, elkartasunaren eta nazioarteko bizikidetzarenak ere badira.

Oro har, garapenerako lankidetzak, Basaurin, bere historia eta nortasunarekin bat datorren eredua islatu behar du : lankidetzaren konprometituak, integratzaileak eta eraldatzaileak izan behar du, tokiko jarduna eta ikuspuntu globala uztartuko dituenak, giza garapen jasagarria eta biztanleria aktibo eta solidarioa lortzeko.

II. Garapenerako lankidetzaren politikaren ildo estrategikoak, tresnak, eragileak eta baliabideak, Basaurin

4. Proposatutako jardueraren ildoak

Lankidetzak, Basaurin, bere egin dituen otsailaren 15eko 3/2024 Legean jasotako lankidetzaren eta elkartasunaren euskal politika publikoaren helburuak: pobrezia eta berdintasunaren ezaren aurkako borroka; justizia globala eta giza eskubideak (genero-berdintasuna, jasangarritasun ekologikoa, giza eskubideak); gizarte inklusibo eta demokratikoak; parte-hartzea; euskal gizartearen balioak gizarte mobilizaziora eta ekintza solidarioa bideratzea, eta erakundeak sendotzea, bai Euskadin, bai Hegoaldean. Era berean, inguruko beste erakunde publikoekin koordinatzea baloratzen da: beste udalerri batzuekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Euskal Fondoarekin...

Lehen aipatutako elementu globaletatik eta tokiko elementuetatik abiatuta, lankidetzaren Basauriko politika honako jardueraren ildo estrategikoetan egituratuko da:

a. Tokiko erakundeak sendotzea

Kooperazioa deszentralizatuta dago. Testuinguru horretan, toki bakoitzeko garapen-erronkei heltzerakoan, ezinbestekoa da tokiko erakunde guztiek (bai tokiko gobernuek, bai lurralde bakoitzeko ehun soziala osatzen duten gainerako organizazioek) rol aktiboa eta lankidetzan aritzeko eta adostasunak lortzeko gaitasuna edukitzea.

Jardueraren ildo hori lotuta dago Lankidetzarako eta Elkartasunerako otsailaren 15eko euskal Legeak lehenetsitako elementuetako batekin: lurralde-oinarriko ikuspegia, zeinak «tokiko boterea handitzea du helburu, eragileak kontzertatuz eta antolatuz, gizarte- eta erakunde-eragileen gaitasunak eta ahalduak indartuz, eta maila anitzeko aliantzak bultzatuz».

Erakunde publikoen ahultasuna identifikatu da eremu askok duten garapen-arazo nagusietako bat bezala, non herritar guztiek ez baitaukate bermatuta eskubideak baldintza beretan eduki eta egikaritzea, eta, beraz, mugatuta baitaukate beren gaitasunak eta aukerak garatzea. Erakunde horiek erakunde-arkitekturaren funtsezkoak badira ere, lurraldeko gainerako organizazioen rol aktiboa ere ezinbestekoa da, gobernantza guztiek partekatzen duten ardura da eta. Hori lortzeko, mekanismo batzuk existitzen dira, behar-beharrezkoak direnak prozesuen bideragarritasuna bermatzeko. Horien adibide dira gizarte zibilaren parte-hartzea edo sektore publikoaren eta gizartearen arteko topaguneak sortzea.

Garrantzitsutzat jotzen da Estrategia Esparru honetan proposatutako tresnen bitartez erakunde guztien gaitasunak gara daitezela sustatu eta indartzea. Horren bitartez bilatzen dena da erakunde baten politika, egiturak, prozesuak, lidergoa eta kudeaketa-sistemek lurraldeen gobernantza, gardentasuna eta bizikidetzaren hobetzen laguntzea, besteak beste; bi hitzetan esanda, garapen jasangarriagoa izan dezatela.

b. Gizartea eraldatzeko hezkuntza

Estrategia Esparru hau aurkeztzen da, gizarte basauriar arduratsuago, solidarioago eta konprometitua bultzatzeko, bidezkoagoa den mundu bat eraikitze aldetekin engaiatuko dena. Horren harira, funtsezkoa da gizartea eraldatzeko hezkuntzaren (GEH) lerro hori, Basaurin, Euskadin eta beste lurralde batzuetan giza eskubideetan, berdintasunean eta bizitzaren iraunkortasunean oinarritutako gizartea eraikitze konprometitua eta kritikoa izango den hezkuntza baten alde egiten duelako.

GEHk bere egiten du hezkuntza herrikoien pedagogia, eta, besteak beste, honako printzipio hauen alde egiten du: nagusi den garapen-eredua eta patriarkatua desnaturalizatzea; gure iruditeria kolektiboa dekolonizatzea eta, horren bidez, bestelako ezagutza-molde eta izaera batzuetarako bidea urratzea (eredu eurozentrismoak eta androzentrikoak albo batera utzita), eta justizia sozialarekin, aitortzarekin, elkartasunarekin, jasangarritasunarekin eta ekitatearekin konprometitzea.

Beraz, GEHk hezkuntza formalaren eremua gaitzen du: planteatutako logikari jarraikiz, bizitza bere osotasunean hartzen du, eta, hartara, zentzu zabalean ulertu beharra dago —hau da, hezkuntza formaleko eta ez formaleko ekintzak aurreikusita eta eragile guztiak aintzat hartuta (Udala bera barne)—.

Ikuspegi hori ez da berria: Udalaren gaur egungo ardatzetako bat da, «Sentsibilizazioa eta GEH» izenekoak. Orainsu arte, GKEEk garatzen zuten, dirulaguntza-deialdiaren bitartez. Estrategia Esparru berrian, ordea, aitortzen da garrantzitsua dela jardueraren ildo hori eustea (GKEEen hezkuntza-rola) eta, horrekin batera, sustatzen da sozializazio kritikoa Basauriko eragile gehiagok har dezatela beren gain, ez bakarrik kooperazioaren eremukoek.

Basauriko Udalak ahalmen handia dauka eremu horretan, hiru arrazoi direla eta:

- eskumen batzuk ditu hezkuntzaren alorrean: azpiegiturak zaintzea, zerbitzu osagarriak hornitzea, ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduerak kulturalak sustatzea, besteak beste... Horrela, bada, aitzinean dago, udalerriko ikastetxe publikoekin harremanak izateari dagokionez.
- Udalak gune sozial eta kultural ugari kudeatzen ditu, hala nola Social Antzokia, Arizko Dorretxea, Basozelai eta Kareaga gizarte etxeak, San Migel eta Ibaigane kultur etxeak, Taberna Nagusia... Horiek guztiak

baliatu ahal dira basauriarrei lankidetzarako proposamenak hurbiltzeko eta herritarrek sentsibilizatzeko, hezkuntza ez formalaren ikuspuntutik.

- Gizarte-eta ekonomia-eragileekin jarduteko duen gaitasuna medio, lurraldeko beste erakunde batzuetan parte hartzea ahalbidetu dezake, zenbait ekimenetan.

Beraz, estrategikotzat jotzen da Basauriko eragileak sentsibilizatzeko, hezteko eta subjektu aktibo gisa bihurtzeko ekimenak abiaraztea; bai eskoletatik hasi eta gizarte-erakundeetaraino, bai, oro har, Udalean bertan eta herritarren artean.

c. Genero-ekitate

Basaurik konpromiso sendoa du genero-ekitatearekin. Alde batetik, mugimendu feminista kritiko eta proposatzailea dago herrian, mobilizatzeko eta erakundeekin hitz egiteko gaitasun handia duena. Mugimendu feminista horrek oso rol esanguratsua izan du borroka feministen historian, Estatu mailan ere bai. 2000. urteaz geroztik, mugimendu feministak ikuspegi lokal-global batetik eusten dio bere konpromisoari: bere lurraldean jarduteaz gain, Hegoaldeko emakumeen borrokekin ere engaiatuta dago.

Beste alde batetik, Basauriko Udalak Berdintasunaren I. Udal Plana dauka, 2024-2027 aldirako, eta bere xedea da erakundearen barruan berdintasuna sustatzea. Bestalde, Indarkeria Matxistaren aurkako Tokiko II. Planak, 2024-2027 bitartekoa hori ere, prebentzioaren, arreta integralaren, salaketaren eta erreparazioaren alorreko jarduketak proposatzen ditu, udal mailan. Bada, Basauri 2030 Estrategiak zera aurreikusten du, 4. helburuan: Udalerrian berdintasuna sustatzea, genero-indarkeriaren aurka borrokatzea eta emakumeen ahalduntzea bultzatzea. Hau da, lehen aipatutako bi planetan jasotako udal lehentasunak jasotzen ditu.

Udalaren Berdintasun Atalaren bisioak izaera feminista nabaria du, eta hortik abiatuta eraiki du Berdintasun Plana, ikuspuntu intersektional eta feminista batekin. Bisio hori da, hain zuzen ere, Garapenerako Lankidetzarako Estrategia Esparru honek bere egiten duena.

Feminismoak eskatzen du ikuspegi kritikoa edukitzea eta aztertzea zelan zenbait faktore (sexua, klasea edo etnia, esaterako) lotzen diren eta menderatze-sistemak eratzen dituzten. Honako hauek dira ikuspuntu horren ezaugarri batzuk: i) estereotipoak zalantzan jarri, eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak ulertzea bilatzen du; ii) menderakuntza soziala zenbait faktorek elkarri eragitearen eta elkarrekin gurutzatzearen ondorio dela aitortzen du; iii) bere helburua da egitura menderatzaileak aldatzea, gizarte bidezkoagoa lortzeko; iv) emakumeak, neskatoak eta beste genero-identitate batzuk ahalduntzeko lan egiten du, haiek prozesu sozialetan eta hezkuntza-prozesuetan parte har dezatela sustatuta, eta v) arazo globaletarako tokiko irtenbideak proposatzen ditu, kutsu internazionalista nabarmenarekin.

Horrela, bada, ikuspegi horren abiapuntua da eremu horietan lan egiten duten Basauriko emakume-mugimenduak eta kolektiboak aintzat hartzea, haiei aditzea eta haien aldarrikapenak jasotzea. Ikuspegi horrek, gainera, transbertsala izan behar du, garapenerako lankidetzaren alorreko edozein ekintzatan.

d. Ikuspegi ekosoziala

Bai Iparraldean, bai Hegoaldean, gero eta ageriagoak dira garapen-eredu hegemonikoak, eta, zehazki, klima-aldaketarenak, ingurumenean izaten ari den ondorioak: gero eta sarriagoak dira natura higatzen eta suntsitzen ari garela agerian uzten duten seinaleak. Horren eraginez, krisi ekosozialari buruz hitz egiten dugu, gaur egun; gizaki-ekintza baita gaur egun bizi dugun egoera sortu duena, eta giza-komunitateak baitira horren ondorioak pairatzen dituztenak (modu desberdinetan bada ere).

Egoera hori islatu egin dute nazioarteko zenbait akordiotan. 2030 Agendan, adibidez, aitortu egiten da lotuta doazela garapenaren dimentsio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Ildo beretik, Parisko Akordioak, zeina juridikoki loteslea baita, bilatzen du berotze globalak 2º C ez gainditzea, klima-aldaketaren ondorio latzenak ekiditeko (zientzialariek aurreikusi dute muga hori gaindituz gero etorriko liratekeela).

2030 Agendak «garapen jasangarria» kontzeptua proposatzen du, egoerari aurre egiteko eta garapenaren dimentsio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa harmonizatzeko. Alabaina, planteamendu horren oinarrian «jasangarritasun ahularen printzipioa» dago, garrantzi-maila berean jartzen dituen lehen aipatutako dimentsioak. Horri esker, batean atzerapausorik egonez gero (ekologikoan, adibidez), orekatu egin daitezke beste eremuetan (ekonomikoan, esaterako) izandako aurrerapausoekin.

Jasangarritasun ahularen ikuspuntuan oinarritutako garapen jasangarriaren esparruaren aurrean, esparru hori jasangarritasun sendoaren ikuspegitik begiratzen diona dago. Lankidetzarako eta elkartasunerako egungo euskal legea printzipio horretan oinarritzen da, hain zuzen ere. Horri jarraikiz, natura-kapitala (ekosistemen baliabideak eta zerbitzuak) funtsezkoa da gizakion eta gizakiak ez garenon bizirautea bermatzeko, eta fabrikatutako kapitalak (teknologia edo kapital ekonomikoa) ezin du natura-kapital hori ordeztu. Hori horrela, mugak jarri behar zaizkio baliabideen ustiatzeari eta hondakinen sorrerari, eta lehenetsi natura-sistemak babestea, epe luzera ere zerbitzu ematen jarrai diezaguten — eta, areago, garapen ekonomikoa bera iraunkorra izan dadin—. Finean, printzipio horrek proposatzen duen garapen-ereduan, gizakion eta gizakiak ez garenon biziraupena dira ardatz, eta, horri bermatzeko, beharrezkoa da printzipio horrekin bat datozen ekoizpen- eta kontsumo-ereduetarako trantsizioa egitea, bai maila globalean, bai tokikoan.

Lankidetzarako euskal legeak ikuspegi hori txertatzen du zioen azalpenean, Legearen helburuetan (4. artikulua) eta lehenetsitako ikuspuntuetan (6. artikulua).

Basauriko Udalak badaki gaur egun egoera konplexua bizi dugula eta oso garrantzitsua dela trantsizio ekosozialerako prozesu bati ekitea, eta, ildo horretan, bere egiten du honako hauetan jasotako ingurumen-jasangarritasun politika: batetik, Klima Aldaketari egokitzea 2021, zeinak epe labur eta luzerako helburuak jasotzen baititu —adibidez, udal eraikinetan irizpide bioklimatikoak txertatzea, ur-mikroklimak sortzea, larrialdien kudeaketa hobetzea eta herritarren kontzientziazioa sustatzea—; eta, bestetik, Basauri 2030 Estrategia —13. helburua, «Udalerriko naturaguneak eta berdeguneak zaindu eta leheneratzea»; 14. helburua, «Ura modu jasangarri, solidario eta erresilientean kudeatzea»; 14. helburua, «Energetikoki jasangarria izango den udalerri baten alde egitea», edo 18. helburua, «Klima-aldaketaren aurrean erresilientea izango den udalerri bat lortzea».

Estrategia Esparru honek, beraz, ikuspuntu ekosoziala dauka, koherentea da feminismoarekin eta GEHrekin duen konpromisoarekin, eta estrategikotzat jotzen ditu trantsizio ekosozialerako aurrerapausoak dakartzaten ekintzak, hau da, alor hauetakoak: energia-efizientzia, mugikortasun jasangarria, biodibertsitatearen babesa, lurraldearen kudeaketa jasangarria, kontsumo arduratsua, biziaren iraunkortasunean oinarritutako ekoizpen-eredu berriak eta abar.

e. Kulturartekotasuna

Migrazioak eta nahitaezko lekualdatzeak dira globalizazioaren beste aurpegi agerietako bat. Izan ere, gizarte guztietan, izan Iparrekoak izan Hegokoak, lurralde eta errealitate desberdinetatik gatozen norbanakoak bizi gara.

Eustaten datuen arabera, atzerrian jaioetako 5.309 egoiliar zeuden Basaurin, 2024ko urtarrilaren 1ean: udalerriaren biztanleria osoaren % 13,12. Basauri da, beraz, Bizkaian atzerriko biztanle-ehuneko altuena duen herria, eta, hartara, gizarte integratua eraikitzea erronka bat da, beste lurralde askorekin partekatutakoa.

UNESCOK honelaxe definitzen du kulturartekotasuna: «zenbait kulturak aldi berean elkarrekin bizitzea eta elkarri eragitea, modu ekitatiboan, eta partekatutako kultura-adierazpideak sortzeko aukera edukitzea, elkarrekin hitz eginda eta elkar errespetatuta». Hori guztia, gainera, mende luzez kultura-harremanak baldintzatu zituen ikuspegi kolonizatzailea baztertuta. Erakunde horrek berak nabarmentzen du kulturarteko elkarriketak gizarte-kohesioa bultzatzen duela eta garapen jasangarrirako egokia den giroa sortzen duela. Askotariko kultura, talde eta gizarteen arteko elkarrekintza ekitatiboan, elkarriketan eta elkarrenganako errespetuan oinarritutako ikuspegia da, helburu duena partekatutako kultura-adierazpenak sortzea eta berdintasunerako eta elkar ulertzeko espazio bat sortzea.

2030 Agendako ikuspuntu transbertsala denez, eta Basauriko tokiko errealitatean isla duenez, argi eta garbi, Estrategia Esparru honek ere lehentasunezko ardatz moduan hartzen du. Ondorioz, halakotzat joko dira honako xede hauek dituzten ekimenak: kulturen arteko desberdinkeria eta

diskriminazioa eragiten duten faktoreei edo kultura jakin batzuei buruzko estereotipoak finkatzen dituzten aurrejuzguei aurre egitea; genero-rolak kultura-nortasunaren osagai direlako ustea desmitifikatzea; kulturen arteko topaguneak eta bizikidetzak bultzatzea, eta abar.

f. Ikuspegi lokal-globala

Lehen aipatu denez, 2030 Agenda aurreko beste esparru batzuetatik bereizten duen ezaugarrietako bat da herrialde guztietarako garapen-helburu komunak identifikatzen dituela, globalizazioak denok partekatzen ditugun erronkak dakarzkigulako —lurralde-testuinguru bakoitzak berezitasunak badakartza ere—. Hori dela eta, Agendak garapenerako politikak Hegoaldeko herrialdeetan fokalizatzekeo ideia baztertu, eta ekiteko deialdi unibertsala egiten du.

Lankidetzarako eta Elkartasunerako euskal Legeak jasotzen duen moduan, ikuspegi horrek planetako lurraldeetan erronka global komunak daudela onartu, eta sistemaren interdependentziak eta desparekotasuna eragiten duten egiturazko kausak ulertzen sakontzen du. Ikuspegi horrek maila anitzeko eraldaketak bultzatzeko tokiko prozesuen arteko lotura eta horiek prozesu eta estrategia globalekin dituzten loturak sustatzen ditu.

Era berean, Estrategia Esparru honentzat garrantzitsua da babesten jarraitzea herritarrek interdependentzia lokal-globalen alorreko harremanen aurrean ahaldunduz jarraitzea ahalbidetzen duten ekimenak, harreman horiek lurralde desberdinetan duten eraginak aztertzen dituztenak eta eraldatzea sustatzeko zein estrategia sustatu daitezkeen ikertzen dutenak.

Jarduketek, alor horietan, ezaugarritzat dute bat datozela Lankidetzarako eta Elkartasunerako Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 15eko 3/2024 Legearekin, zeinak honako hauek aurreikusten baititu:

- konpromiso solidarioa
- horizontaltasuna eta Hegoaldearen protagonismoa
- parte-hartzea
- ekitatea
- erantzukizun partekatuak eta bereiziak
- koherentzia
- kalitatea
- etengabeko hobekuntza

5. Lan-ardatzak eta lan-tresnak

Lehen aipatutako jarduera-ildo estrategikoekin bat, Basauriko Udalak justizia globalarekin duen konpromisoa hiru ardatz nagusiren bitartez islatzen da **Garapenerako Lankidetzaren Estrategia Esparru** honetan:

- a. **garapenerako Lankidetzaren Hegoaldean,**
- b. **gizartea eraldatzeko hezkuntza (GEH), eta**
- c. **larrialdia.**

Ardatz horiek ikuspuntu integrala osatzen dute, aukera ematen duena nazioarteko zein tokiko mailan jarduteko. Honako hauek dira bakoitzari esleitutako lan-tresnak:

a. **Garapenerako lankidetzaren Hegoaldean**

Ardatz horrek bilatzen duena da Hegoalde Globaleko herrialdeetan garapen-prozesuak indartzea, eta, horrekin batera, harreman horizontalak eta erantzukidetasunekoak sustatzea. Horretarako, Basauriko Udalak bi tresna baliatzen ditu, batez ere:

a.1. **GKEEn proiektuetarako deialdia**

Garapenerako gobernu kanpoko erakundeentzako finantziario-lerroa da: Hegoaldeko herrialdeetan proiektuak garatzen dituzten, eta lurralde horietan bizibaldintzak hobetzea bilatzen duten GKEentzako, hain zuzen ere. Gainera, Estrategia Esparru honetan, nobedade gisa, GEHaren eremuko ekintzak deialdi horretan jasotzearen aldeko apustu egin da, ebaluazio-irizpideak eta finantziario-lerroa bateratuta. Gauzak horrela, halako ekimenek GEHaren osagaia ere eduki beharko dute.

Ikuspuntu horrek bilatzen du basauriarrek modu zuzen eta kritikoan ezagutu eta ulertzea Hegoaldeko lurraldeen errealitateak, Udalak finantzatutako ekimen zehatzen bitartez. Modu horretan, hurbilketa teorikoak edo testuinguruz kanpokoak ekidin, eta eraldatze-prozesuak tokiko eremura hurbildu nahi dira.

a.2. **Lankidetzaren teknikoaren Hegoaldeko tokiko gobernuarekin**

Basaurik Euskal Fondon parte hartzen du, modu aktiboan, eta, hala, Hegoaldeko tokiko gobernuarekin erakundeak sendotzeko garatutako proiektuak laguntzen ditu, eta sare-lana eta ezagutzak trukatzeko bultzatzen du.

Tresna horrek zenbait udal arlo eta atal nazioarteko lankidetzaren prozesuetan engeiatzea ahalbidetzen du —Berdintasuna, Ingurumena edo Gizarte Zerbitzuak, esaterako—, eta, hala, berdinen arteko trukea sortzen du, Udalaren beraren eskarmentu teknikoan oinarrituta. Tokiko gaitasunak indartzearen aldeko

apustu argia da, eta erantzukidetasun printzipioarekin lerratutako kalitatezko lankidetzaren deszentralizatuaren aldekoa ere bai.

b. Gizartea eraldatzeko hezkuntza (GEH)

Gizartea eraldatzeko hezkuntza (GEH) funtsezkoa da Basauriko Udalaren estrategian, helburu baitu biztanleria kritikoa, informatua eta justizia globalarekin konprometitua bultzatzea. Ardatz hori honako hiru tresna hauen bidez garatzen da:

b.1. Lankidetzaren zuzena, beste eragile batzuekin batera

Horren bidez, Udalak lankidetzaren hitzarmenak egin ditzake GKEEekin jarduerak publikoak egiteko: azokak, jardunaldiak, erakusketak, hitzaldiak, sentsibilizazio-kanpainak...

Ekintza horiek, Hegoaldean finantzatzeko proiektuak ezagutarazteaz gain, garrantzi handia duten gai globalen gaineko hausnarketa kritikoko prozesuak eragin ditzakete: genero-indarkeriaren aurkako borroka, klima-aldaketa, LGTBI kolektiboak pairatzen duen diskriminazioa, derrigortutako migrazioak...

Gainera, tresna horrek Udalaren barruko **arloan edo atal desberdinen arteko lankidetzaren** dakar, eta tokiko gaiei buruzko ikuspegi globala bultzatzen du.

Sinergia horren adibide da Basauriko ikastetxe batzuetan Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) gainean egiten ari den lana, zeina Udalak babestutako nazioarteko proiektuekin lotu baitaiteke.

b.2. Basauriarrentzako beka banatzea, urtero

Udalerriko oinarri soziala sendotzeko garapenerako lankidetzaren inguruan, proposatzen da **nazioarteko boluntariotzen beka berreskuratzea**. Beka horiek 18 urte baino gehiago izan, Basaurin bizi, eta GKEEen aurrera eramandako proiektuetan borondatezko egonaldi edo praktikak egin nahi dituztenei zuzenduta egongo lirarteke.

Bekak emateko tresna bi identifikatu dira:

- «Gaztenpatia» programarekin lankidetzaren aritzea. Euskal Fondoak eta Euskal Herriko Unibertsitateak garatzen dute, eta, horren baitan, 30 ikasle gaztek, urtero, gradu- edo master-amaierako lana edo unibertsitate-praktikak egiten dituzte Euskal fondoak Hegoaldeko herrialde batean zuzendutako lankidetzako proiektu batean. Programa horretan parte hartzen duen ikasle basauriarrik balego, Udalak beka emango lieke.
- Basauriko GKEEei dirulaguntza zuzena ematea. Horretarako, boluntariotza-proposamen bat aurkeztu beharko lukete, Hegoaldeko beren proiektu batean garatzeko.

Helburua, oro har, da **komunitatea sentsibilizatzea**, eta, beraz, beka jasotzen dutenek ikasitakoa partekatu beharko dute herritarrekin eta/edo tokiko beste kolektibo batzuekin. Horrela, bada, bilatzen da kontzientzia kritikoa eta erantzukidetasun globala garatzea.

Eta, azkenik, Hegoaldeko Lankidetzaren ardatzean aipatu denez, GEHren alorreko ekintzak azken proposamen horietan txertatzen dira, eta, hala, Hegoaldeko lurraldeetan garatutako ekimenak basauriarren artean ezagutaraziko dira, ikuspegi kritikoaren eta bisio globalaren garrantzia azpimarratuta.

c. Larrialdia

Larrialdi humanitario edo natura-hondamendi egoeretan, Basauriko Udalak erantzun solidarioa ematen du, finantziazio-tresna arin baten bitartez:

c.1. Proiektu edo funtsa baterako dirulaguntza izenduna

Tresna horrek ahalbidetzen du larrialdi-ekintzetarako laguntza zuzena ematea, dela proiektu espezifiko bat finantzatuta dela ekarpena eginda beste erakunde batzuek kudeatutako funtsa humanitarioetara.

6. Lankidetza-agentiak

2009az geroztik, GKEEak izan dira Basauriko udalerriko lankidetza-agente nagusiak, eta aurreikusten da Estrategia Esparru honen helburuak betetzeko rol estrategikoa izaten jarraituko dutela, beren eskarmentua, ezagutzak eta konpromisoa aintzat hartuta.

Alabaina, garapenerako lankidetza berritzeko eta ildo horretan sakontzeko borondatearekin bat, eta erantzukidetasun-printzipiotik abiatuta, lankidetza-agenteen rolei bete-betean eragiten dieten funtsezko elementu bi txertatu dira:

- a. Irabazi-asmorik gabeko eragile berriek parte hartzea nazioarteko garapen-eta lankidetza-politiketan. Aitortzen da Basauriko elkartegintzako beste talde batzuek izan dezaketen balioa —nazioarteko lankidetza xede nagusitzat ez duten horiena ere—, eremu komunitarioan, sozialean, ingurumenekoan edo hezkuntzakoan duten eskarmentuan oinarrituta.

Beraz, Plan honek sustatzen du honako alor hauetan lan egiten duten tokiko entitateek ere modu aktiboan parte hartzea lankidetza-proiektuetan: emakumeen eskubideen eremuko eragileak, migrazioaren eremukoak, ingurumenekoak, kirolekoak, gazteriakoak, garapen komunitariokoak edo hezkuntzakoak, besteak beste. Beren ekarpena ez da mugatzen onuradun izatera: beren jakintzetatik, bizipenetatik eta antolakuntza-gaitasunetik inplikatu daitezela sustatzen da.

- b. Gainera, lankidetzako eragileek parte hartzea, elkarrekin hitz egitea eta koordinatzea sustatzeko, Estrategia Esparru honek aurreikusten du Garapenerako Lankidetzaren Lan Mahaia delakoa eratzea.

Honako hauek bilduko ditu mahai horrek:

- Udalaren ordezkariak, Lankidetza Atalekoak (zinegotzia eta teknikariak).
- Udal dirulaguntzak jasotzen dituzten GKEEen ordezkariak.
- Eta, hala badagokio, udalerriko beste eragile sozial batzuen ordezkariak.

Mahaia kontsulta- eta aholkularitza-tresna eta topagune iraunkorra izango da. Ez da loteslea izango, eta lankidetzaren alorreko udal politika diseinatzen, eta haren jarraipena eta ebaluazioa egiten lagunduko du.

Honako hauek izango dira Mahaiaren zeregin nagusietako batzuk:

- Estrategia partekatuak bultzatzea gizartea eraldatzeko hezkuntzaren eremuan, Basaurin; eta basauriarren artean nazioarteko elkartasunarekiko konpromisoa sustatzea.

7. Baliabideak, jarraipena eta ebaluazioa

Basauriko Udalak konpromisoa hartzen du Udal Aurrekontuan Nazioarteko Garapenerako Atalari esleitutako ehunekoa % 0,7 edo gehiago izateko (gaur egun, Aurrekontuaren % 0,5 da).

Horrez gain, erakunde publikoen jarduketan gardentasunarekin bat, Estrategia Esparru honetan jasotako gaien jarraipena eta ebaluazioa urteko memorien bidez eta inplementazioaren amaierako ebaluazio baten bitartez egingo da. Jarraipen eta ebaluazio horren xedea da Estrategia Esparruaren indarraldian eta/edo etorkizuneko bertsioetan aplikatu ahalko diren ikaskuntzak lortzea.

Bestalde, jarraipenaren eta ebaluazioaren emaitzak eta ikaskuntzak berak gizarteratu egingo dira Lankidetzaren Udal Kontseiluan, eragileekin eta, oro har, herritarrekin.

8. Bibliografia

Nazio Batuak. (2015). *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible*. Nazio Batuen Erakundea. Hemen eskuragarri: <https://sdgs.un.org/es/2030agenda>.

Basauri 2030 Estrategia.

Basauriko Udala, Berdintasunaren I Barne Plana, 2024-2027.

Basauriko Udala, Indarkeria Matxistaren aurkako Basauriko Tokiko II. Plana, 2024-2027.

Basauriko Udala, Basauriko Udalerria Klima Aldaketaren Ondorioetara Egokitzeko Plana (2021).

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseilua (2016): *Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Politiken Koherentziarako Erreferentzia Esparrua* Hemen eskuragarri: https://www.elankidetz.euskadi.eus/contenidos/documentacion/publicaciones/cpd/eu_def/adjuntos/Erreferentzia-Esparrua-CPD_EUS.pdf

Etxano, Iker (2024): *La sostenibilidad ambiental en la cooperación al desarrollo. Análisis del territorio de Gipuzkoa*. Hemen eskuragarri: <https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/publications/637>.

3/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Lankidetzarakoa eta Elkartasunerakoa. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/2024/02/15/3>.

Bizkaiko Lankidetzako IV. Plan Zuzentzailea (2022-2030).